

## SEGMENTACION

Proiektu hau Gasteizko biztanle guztiei zuzenduta dago, bakoitzak bere bizitzan segurtasuna behar duela uste baitugu. Haietakoren batek norbaitek eraso egingo diela iruditzen bazaie, gure produktuarekin dauden egoeratik onik ateratzeko aukera izango dute.

Hala ere, gure bezero nagusiak emakumeak direla uste dugu. Emakumeek gizonek baino gehiago behar dute produktu hori, batzuk bortxatuta bukatzen baitira.

Espanian, esaterako, 1.702 emakume bortxatuak izan ziren 2018an, eta kopuru horrek gora egin du urtero (2019an % 37 igo ziren). Nola lagundu dezake gure produktuak abusu kopuru hori jaisten? Neska asko "bahitu" egiten dituzte kalean oinez doazen bitartean, edozein egunetan, etxera itzultzen direnean. Askok jazarri baino lehen jakiten dute bortxatuko dituztela, baina jakitean beranduegi da zerbait egiteko. Gure produktuarekin, emakumeak jakingo du ez duela gehiegi ibili beharko laguntza aurkitzeko, izan ere, gailu elektronikoa bat izango du gertu eta, esan bezala, aukera bat izango du salbatzeko.



Beste bezero batzuk ere baditugu. Hiriko zenbait gunetan ohikoa da lapurtzea. Uste dugu aparatu horrekin krimen-tasa jaitsi egingo litzatekeela. Alde batetik, jendeak denbora izango luke gertatu baino lehen lapurtuko dietela jakinarazteko, eta, bestetik, lapurrek jakin egingo dute ez dutela denbora askorik lapurtzeko, eta haietako batzuek amore emango dute, eta beste gauza batzuk egiten saiatuko dira dirua irabazteko eta bizimodu hobea izateko.

